



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Ainhoa Bereau Altxu
Arkaitz Mindegia Baleztena

2025eko uztailaren 31an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2025eko maiatzaren 23ko akta onartzea.

2. ESKAERAK

2.1.- Jose Luis Erasun Ariztegui jaunak komunalen 60/SCO/24 expedientea ikusirik 3 poligonoko 16, 13 eta 432 eskriturak aurkeztu ditu eta komunalen txostenarekin ezadostasuna adierazten du, eskriturak Komunal sailari bidaltzea eskatuz.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aurkeztutako eskriturak Komunal sailari bidaltzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.2.- Jose Luis Erasun Ariztegui jaunak Iturengo egoitza elektroniko bidez idatzi bat aurkeztu du 417/2025 zenbaki duena 2025eko ekainaren 27an. Bertan adierazten du; 2025/51 alkate ebazpena jaso zuela egindako obrak gelditzeko esanaz. 3.poligonoko 343 lurzatian obrak ez direla egin eta beraien etxera eta 3. Poligonoko 12. lurzatirako sarrera asfaltatu duela, 2022/73 alkate ebazpenean emandako baimena izanda.

Emandako 2022/73 alkate ebazpena ikusirik, eskatzaileak bere etxe ondoko lurzatira pasoa irekitzea eskatzen zuen eta aurkeztutako aurrekontuan “abrir acceso al terreno” aipatzen da. Lizentzia, horren arabera eman zitzaion eta “pasoa irekitzeko” lizentzia zehaztu zen. Beraz asfaltatzeko baimen ez zen eskatu eta horretarako baimena ez zen eman.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Horregatik, 2025eko ekainaren 16an 2025/51 alkate ebazpenean obra gelditzea jakinarazi zitzaion epe bat emanez alegazioa aurkezteko. Epean idatzia aurkezten dute.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Alegazioa ez da onartzen.

2. Asfaltatzearen obrak legalizatzeko, eskaera eta aurrekontua aurkeztu beharko du.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.3.- Eider Altxu eta Naia Erregerena andreek Iturenen besta handiren bat dagoenean komuna mugikorrak jartzeko eskaera aurkeztu dute, herritarren atariak ahal den hoberena zaintzeko. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera onartzen da. Iturengo udalak inauterietan komunak jarri zituen eta apirilaren 12an ospatu zen asteburu solidarioan Kapillako komunak ireki ziren. Udalak herriko bestetan ere, komunak jartzeko idea du.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.4.- Rafael Unchalo Odriozola jaunak 2.poligonoko 521.lurzatian dauden bi zain irauli aprobatzeko baimen eskaera egin zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera onartzea.

2.-Aprobetxamendiaren truke 10,80 euro kobratzea, basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.5.- Amaia Altxu Juanicorena andreak, Iturengo errepidean egindako azken lanen ondorioz egindako garbiketa dela eta auzolana apuntatzeko eskaera aurkezten du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aipatutako kasu horretan, herriko auzotar guztiak beraien sarrera garbitu dute, beraz ezin da auzolana bezala kontutan hartuko.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

2.6.- Marcelino Alchu Ochandorena jaunak, Arriberría etxe atariko espaloia (azera) eta errepide artean zulo bat dagoela eta putzuak egiten direla aipatzen du. Udalari eskatzen dio bajada beste alde batera bideratzea, putzuak ekiditzeko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Arazo hori konpontzeko Nafarroako Gobernuak Errepide sailarekin egon behar da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.7 JR Bazterrika Mutuberria jaunak Eskiñea etxeko espaloitik errekaraino rejilla bat jartzeko eskaera aurkeztu du udalan, urak bideratzeko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Kontutan hartuko da aipatutako arazoa eta udalak konpontzen saiatuko da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.8.- Baso Zerbitzuko zuzendariak 2016.ko abuztuaren 23ko 399 ebazpena bidez, Iturengo udalari baimendu zion 2016.urteko oihan aprobetxamenduko plana.

Kenari Erasuni esleitu zitzaion, 3120164149 espediente zenbakiarekin eta luzapenak eman ostean, 2025eko otsailaren 26an Nafar Gobernuak basozainak azkeneko akta egin zuen, lanak ez bukatzeagatik ondorioztutako kalte ordaina jarritz, 1.925,74 euroko hain zuzen ere.

Baso Zerbitzuaren Zuzendariak 94/2025 ebazpenean, maiatzaren 30koan, azkeneko akta hau onartzen du eta 1.925,74 euroko kalteordaina aipatuz.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Nafarroako Gobernuak Baso Zerbitzuko Zuzendariak egindako 94/2025, maiatzaren 30ko ebazpena, Iturengo udalak onartzen du.

2. Kenari Erasunerik aipatutako kalteordaina ordaintzea eskatzea, 1.925,74 euro, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

**** Jose Maria Alzuri Vertiz, Pedro Francisco Mindegua Elizalde eta Arkaitz Mindegia Baleztena zinegotziak ateratzen dira*****



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

2.9.- Iturengo udalak sakabanatutako zuhaitzak, haritz amerikarrak, Nafar Gobernuako basozainari botatzeko baimena eskatu zion, 2.poligonoko 521 lurzatian (Mirukabeta parajea) eta 1. poligonoko 68 lurzatian (Abatxakar parajea) kokatutak daudenak.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Altzuri Mendi Lanak, S.L. enpresari esleitzea

2.-Aprobetxamenduaren truke Mirukabeta parajekoagatik 1.434,00 euro kobratzea eta Abatxakargatik 977,50, basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

**** Jose Maria Alzuri Vertiz, Pedro Francisco Mindegua Elizalde eta Arkaitz Mindegia Baleztena zinegotziak sartzen dira*****

2.10.- Gema Sansiñena Olaetxea eta M^a Angeles Olaechea Michelena andreek. Tolarea etxearen eta horri itsatsita dagoen Kortexenea etxearen egoera txarrari buruz idatzia aurkezten dute; 2025eko uztailaren 18an, Tolatea etxeko fatxadako harriak erori ziren eta etxearen aurrean aparkatuta zegoen kotxearen kristal bat apurtu zuen eta 2021eko azaroaren 4an, Kortexenea etxeko paretatik harri handi bat erori zen etxearen atzeko partean, beraien etxeko eremuan kalteak eragin zituelarik. Argazkiak atxikitzen dute.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Udal arkitektuari Tolatea etxearen egoerari buruzko txostena eskatuko zaio

2.- Zonaldea itxiko da, kalteak saihesteko.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

3.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (47/2025- 65/2025 ebazpenak).

4.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Elizondo Lanbide Eskolatik Erdi Mailako Administraritzza Zikoloko praktikak egiten ari den Urki Ariztegi Bereau ikaslea Iturengo udalan egon da 2025eko ekainean praktikak egiten---“Uraren bidea” proiektuaren obrak bukatu dira eta bukaerako akta aurkeztu dute--



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

--Maria Larretxea andreak ekainak 15erako Trinitate egunerako eguraldia txarra egitekotan ostatuaren estalpearen erabilera eskatzen du---Maria Larretxea andreak ekainaren 7an udaletxearen ganbara erabiltzeko eskaera egiten du, bertan joaldunen aurkezpena egiteko euskaltegi batetik helduko diren 30 ikasleei— Nafar Gobernuak Iturengo PAMIFa homologatu dute---2025.eko urteko transferentziak---Abeltzaintza zerbitzutik aldeko ebazpena (RE22859) Angel Goizueta oiloak jartzeko--- Abeltzaintza zerbitzutik aldeko ebazpena (RE22637) M^a Teresa Agesta Vertiz oiloak jartzeko--- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txostena Iturengo uraren kalitateari buruz—Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko departamenturi egindako baimena eskaera; Ugo Milito--- Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentuak emandako baimena; Blanca Urroz Garralda--- Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena M^a Victoria Elizalde Garardi ura erabiltzeko baimena emanez eta Miguel Angel Ezcurrari oihan aprobetxamendua ateratzeko— Toki Antolakuntzaren Zuzendari Nagusiak antolatutako bileran, uztailaren 8an Donezteben, Iturengo udalak parte hartu zuen. Areté Activa talde teknikoak dinamizatu zuen eta familia bakarreko eta borden egoerari buruzko ausnarketa teknikoa eta parte hartzailea zuten helburutzat---Iturengo guraso elkartearen eskolako patioaren paretan artelan bat egiteko andamio batzuk erabiltzeko eskaera egin zuten---

5.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude galdera eskaerarik.

Eta bertzerik ezean, 17:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

